

Asisko gutuna

2014ko Azaroa. 1. printzipioa.

Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

73. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Harreman pertsonala kosta egiten da. Eta Jainkoarekiko harreman pertsonala ere kosta egiten da. Horregatik, espiritualtasun errazak, konplikaziorik gabekoen bila ibiltzeko tentazioa izan genezake, harremanean gutxiago lotzen gaituztenak. Asisko Frantziskok irakatsiko digu Jainkoaren aurrean tapakirik gabe, konfiantza osoz jartzen.

Gogoetarako gaia

Tentaldian jarriak

Publizitateak, propagandak, marketinak dimentsio susmatu gabeak lortu dituzten garaia bizi dugu. Alde guztietatik sartzen zaizkigu promesak, gure premiak berehala asebetetzea eskainiz; eta horrela sortuz doaz gugan funtzionatzeko modu bat, berehalako esperoen bidez errealitateari erantzutekoa: “Ikas ingelesa hamar ikasgaitan”, “lor ezazu gorputz perfektua jada”, “zoriona, bermatua” ...

Publizitatea jolasean dabil gure oinarritzko premia eta desirarik onenekin, eta punturik sentiberenak zirikatzen dizkigu: familia, sutondoko bizitza, ongizatea, zoriona, osasuna... Hain tentagarria da bizitza erreala horrela dela pentsatzea! Hain erraza da berehalako konponbidea agintzen dituzten promesetan sinestea, berorien bidez buruhausteatatik liberatuko garelakoan! (“eta bestela, zeure dirua itzultzen dizugu”).

Eta are Jainkoaz klabe horietan beretan hitz egiten duten mezuak entzuten ditugu: “Jainkoaren gauzak zergatik izan behar dute hain zailak? Bizitza, agian, ez da askoz sinpleagoa?”

Erabakia, iraunkortasuna, fideltasuna, egian ibiltzea, norbere buruaz ahaztea exijitzen duten Jainkoarekiko harremanak planteatzearen aurrean, guretzat erakargarriagoak gerta daitezke beste espiritualitate-eskaintza batzuk: sentsazio eta

bizipen atsegingarriak, berehalakoak, berriak eskaintzen dituztenak.

Hori gertatzen da, espiritualitatean eguneroko arazoetatik ihes egiteko modu bat bilatzen dugunean, egun bakoitzaren konplexutasuna konpentsatzen duen bake eta lasaitasunezko baltsamo bat, alegia.

Hori bera gerta daiteke, orobat, Jainkoak gure irrika eta manipulazioei erantzuten ez dienean, ez eta gure haur-irrikari ere, honek Jainkoak gure segurtasun-, lasaitasun-, ongizate-premiarik berehalakoan asetzeraz (eta berehala) makurrarazi nahi duenean.

Baina Jainkoari berari entzun behar zaio, Hari askoz gehiago axola baitzaio gurekin harremanean egotea, guri gustua ematea baino. Aita gurekin harremanean jarri da “erabat eta betiko”; osorik eman zaigu Jesus bere Semearengan. Eta horrek gure bihotza osorik bete dezake (Jainkoak gure gustua betetzeak edo ez betetzeak baino askoz gehiago; edo ahaleginak egin edo gatazkak jasan beharrean izateak baino gehiago, hala nola edozein erlazio baliotsutan gertatzen den. Jainkoari Jainko izaten uzten baldin badiogu, inoiz imajinatu ez genuen maitasunezko harremanera zabalduak gelditzen gara.

Ebanjelioko pasartea: Mt 16, 21-24

Une hartatik hasi zen Jesus bere ikasleei azaltzen, berak Jerusalemara igo eta zahar, apaizburu eta legegaisuen aldetik asko sufritu behar zuela; hil egingo zutela eta hiru egunen buruan piztu egingo zela. Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion: “Ez dezala Jainkoak nahi, Jauna! Ez zaizu horrelakorik gertatuko”. Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori: “Alde nire ondotik, Satanas! Oztopo haiz niretzat, hire asmoak ez baitituk Jainkoarenak, gizakiarenak baizik”. Orduan, esan zien Jesusek bere ikasleei: “Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, bere gurutzeta hartu eta jarrai biezat”.

Frantziskotar espiritualtasuna

“Kontura gaitezen anaia guztiok, bere ardiak salbatzearen gurutzeko nekaldia jasan zuen Artzain onaz. Jaunaren ardiek berari jarraitu zioten larrialdian eta erasoaldian, lotsabidean eta gosean, gaixoardian eta tentaldian, eta gainerako guztietan; eta ordainez, amaigabeko bizitza hartu zuten Jaunarengandik. Beraz, oso lotsagarria da guretzat, Jainkoaren zerbitzariontzat, santuek obra horiek egin eta guk, kontatze hutsarekin, ospea eta ohorea jaso nahi izatea” (Ahol 6).

Jesu Kristori jarraitzea da Frantziskoren irrika handia besterik gabe, Jesu Kristoren Ebanjelio santua bizitzea. Jesusekin egon nahi du, Hura besarkatu, Harekin eta Hura bezala bizi. Badaki Jesusena dela bide bakarra, Haren emana bizitzea. Ez du bere bizitza ziurtatzean pentsatzen, ez arriskutik gordetzean. “Begira diezaiogun Artzain onari”, kontuan izanik Hari jarraitzea, Hari tentaldian, ahulezian, besteei emana bizitzean jarraitzea dela. “Begira diezaiogun Artzain onari”, kontuan izanik, halaber, Harekin egonez eta bide eginez, Harengandik hartuko dugula bizitza betikoa, betea eta osoa, Biziairen Jainkoagandik datorrena. Guztiz lotsagarria da, dio Frantziskok, hainbeste tentatzen gaituzten erosotasun, zuhurtasun egoista eta babes beldurtirako Jesus erabiltzea.

Otoitza

Ni bekatari

Jauna,
ni neugan biltzen naizenean,
ezerk ez du existentziarik:
ez zure zeruak eta mendiek,
ez zure haizeak eta itsasoak,
ez zure eguzkiak,
ez zure izar-euriak.
Besteek ere ez dute izaterik,
ez Zuk,
ez nik.
Neugan pentsatu eta pentsatuz,
neure burua dut hondatzen,
eta bakardade ilun batek inguratzen nau,
eta ez dut ezer ikusten,
ezer entzuten.

Zure aurrean jartzen naiz.
Senda jezadazu bihotza,
hortik irteten baitzait
besteei sufriaraztea,
hor baitaramat mutu eta erreprimetua
zure maitasuna, haiei zor diedana.
Esna nazazu, Jauna, nik neure burua orenen gainetik
maitatzea bezalako koma sakon honetatik.
Etor nadila berriz ikustera,
zu ikustera, besteak ikustera,
zure gauzak ikustera,
zure bizitza ikustera,
zure seme-alabak ... ikustera.
Eta has nadila esaten,
haurrek bezala,
-zezelduz-,
bizitzako bi hitz biribilenak: GURE AITA!

Senda nazazu, Jauna, senda ni barrutik,
hala nola aurrean jartzen zizkizuten
itsu, mutu eta legendarunak.

Ignacio Iglesias, sj

Gutuneko azken hitzak

"Azaleko kontuak entzutea baino mingarriagoa da beharrezkoa duguna ez entzutea" (Marco Fabio Quintiliano)

2014ko azaroko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate azaroko erreferentzia guztiak:

1 Mt 5, 1-12	8 Lc 16,19-15	15 Lc 18, 1-8	22 Lc 20, 27-40	29 Lc 21,34-36
2 Lc 24, 13-16.28-35	9 Jn 2, 13-22	16 Mt 25,14-30	23 Mt 25, 31-46	30 Mc 13,33-37
3 Lc 14, 12-14	10 Lc 17, 1-6	17 Lc 18, 35-43	24 Lc 21, 1-4	
4 Lc 14, 15-24	11 Lc 17, 7-10	18 Lc 19, 1-10	25 Lc 21, 5-11	
5 Lc 14, 25-33	12 Lc 17, 11-19	19 Lc 19, 11-28	26 Lc 21, 12-19	
6 Lc 15, 1-10	13 Lc 17, 20-25	20 Lc 19, 41-44	27 Lc 21, 20-28	
7 Lc 16, 1-8	14 Lc 17,26-37	21 Lc 19, 45-48	28 Lc 21, 29-33	

Azaroko Otoitza hilaren 27an izango da.